

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak, edozein beste enpresa bezalaxe, beste erakunde edo enpresekin erlazionatzeko beharra du, **bazkideak** eta **kolaboratzaileak** lortzearen. Gure zerbitzua ezagututa, bereziki behar izango dugu beste faktore eta agente batzuen partaidetza. Gogoratzearen, eta informazioa laburbiltzeko, gure enpresak orientazio akademikoko zerbitzuak eskaintzen ditu. Horregatik, profesionalen, ikasleen eta unibertsitateak edo irakaskuntza zentroak bezalako erakundeekin laguntza dugu. Gure ideiak eta ereduak funtziona dezaten eta benetan eraginkorrak izan daitezen, lankidetzak horiek ezinbestekoak dira, gure oinarri eta faktore bereizgarrietako bat **esperientzia errealak eta testigantza zintzoak** baitira, bizitakoan oinarritutakoak.

Lehenik eta behin, **ikasketa-zentro** desberdinekin jarriko gara harremanetan, bertan adin eta helburu anitzeko gazteak baitaude eta horiek baitira haien erabakia hartzeko gure laguntza behar izango dutenak. Horien barnean bai **DBH-ko eta batxilergoko institutuak**, bai **hezkuntza profesionaleko zentroak** (erdi- zein goi-mailakoak) daude besteak beste, baita **unibertsitateak** ere. Horien bidez, gazteekin zuzenean hitz egiteko aukera izango dugu, aurrez aurre eta bitartekariren beharrik gabe. Horrela haien kezkak, ideiak eta proposamenak jasoko ditugu gure zerbitzua hobetu eta zorroztearen, ahalik eta hoberen egokitu ahal izateko ikasleen errealitatera.



Horrez gain, gure helburu **nagusienetako** bat **orientazioa txikitatik hasia** da. DBHn informatzen hasia lan-merkatua bere osotasunean ulertzeko beranduegi dela deritzogu, **informazio gehiegi** heltzen zaie ikasleei oso **denbora gutxian**, antsietatea sorraraziz, eta hortaz normala da **galduta sentitzea**; eta zer esanik ez batxilergoan gertatzen denaren inguruan: urte batean 17-18 urteko gazteek, oraindik inolako esperientziarik ez dutenak, gaur egun merkatuan dagoen graduaren eskaintza erraldoian murgiltzen dira benetan horien arteko desberdintasunak ulertu gabe,itsu-itsuan aukeratzen dute. Horri aurre egiteko, aurretik esan dugun bezala, gure proposamena **lehen hezkuntzatik** (era didaktikoago eta sinpleago batean, noski) **lan-mundua** pixkanaka **ezagutzen** joatea da. Horretarako, eskoletara joango gara **hitzaldiak** emateko eta tailerrak antolatzeko horrela txikienean ere aukera guztiak ezagutzeko behintzat eta hasieratik haien buruari hastearren galdetzen etorkizunean zer izan nahi diren. Gainera, ikasleekin zuzenean harremanetan jartzeak gure enpresa hedatzea errazten du. Izan ere, gazteek esperientzia ona izaten badute, agian gure zerbitzu gehiago kontratatu nahi izango dute eta lagunei edo gurasoei guri buruz hitz egingo diete, **ahoz-ahoko komunikazioaz** baliatuta bezero kopurua zabalduz.





Horren adibide gisa, **Bilbao Formación** erakundearekin lankidetzan arituko gara, orientazioa eta prestakuntza espezializatua eskaintzen dituelako eta dagoeneko enpresekin lan egiten duelako enplegua errazteko. Era berean, **El Regato Ikastetxearekin** ere elkarlanean aritzea aurreikusten dugu, ikastetxe horretako kideak garelako eta beti irekita egon delako ekimen berritzaileetan parte hartzeko. Halaber, **Deusto Business School** bezalako erakundeekin harremanetan jartzea ere interesgarria litzateke, haien esperientzia eta kontaktu-sarea gure proiektuaren edukia aberasteko lagungarri izan daitezkeelako.



Horrez gain, edozein motatako **enpresekin eta profesionalekin** ere egingo dugu lan. Berriz ere, desberdintzen gaituen faktore garrantzitsuenetako bat benetako esperientziak eta testigantzak ematea da. Horregatik, benetako profesionalen eta langileen parte hartzea ezinbestekoa dugu, haiek baitira egunak edo urteak daramatenak benetan lanbide horretan eta horren abantailak eta zailtasunak inork baino hobeto ezagutzen dutenak. Informazio hori guztia **gure aplikazioan** eskegiko ditugun **bideoen eta langileek emandako hitzaldien** bidez zabalduko dugu bezeroen artean. Profesional hauentzat ere gazte hauek laguntzea onuragarria izango da etorkizunerako **langileak lortzeko**, zehazki, lanbidea benetan ezagutzen duten langileak, erebaki aurretik egin behar izango zutena zekitenak eta hortaz kontzientziaz aukeratu zuten profesionalak. Harreman horrek, beraz, onurak izango lituzke guretzat eta gure bezeroentzat, eta etorkizuneko inbertsioa da laguntzen duten enpresentzat, **langile motibatuak eta kalitatekoak** izateko.

Honen harira, bi enpresa teknologikorekin elkarlanean aritzea aurreikusten dugu: **Lantek** eta **Coindata**. Lantek, Bilbao Tech gunean kokatua, ingeniarien eta teknologia arloko profesionalen egunerokoa erakusten lagunduko digu, sektoreko esperientzia partekatuz. **Coindata**, berriz, informatikako zerbitzuetan diharduen enpresa da, eta **hitzaldiak eta jardunaldi profesionalak** eskainiko ditu, gazteek teknologiararen mundua hobeto ulertzeko.



Lankidetzak hauek gazteei lanbide errealak hurbiltzea ahalbidetuko dute, eta enpresei etorkizuneko langile motibatu eta prestatuekin harreman zuzena ezartzeko aukera emango diete.

Horrekin hertsiki lotuta, **unibertsitateko eta heziketa profesionaleko ikasleen partaidetza** ere izango dugu. Hauen testigantza ere oso erabilgarria izango da, gazteek lan-bizitza soilik ezagutu beharrean, **nahi duten gradua ikastearen errealitatea ezagutu** dezaten. Esperientzia duten ikasleek, langileek bezala, parte hartuko dute benetako bideoen eta esperientziak partekatuz, baita aholkulari gisa edo aukeratu behar duten gazteekin **tutoretzak** eginez ere, bi aldeek duten interes-mailaren arabera. Oso garrantzitsuak dira,

Batxilergoko ikasleak beraiekin identifikatuta sentitzen direlako eta hurbileko adibide gisa ikusten dituztelako. Gainera, bere istorioek konfiantza sortzen eta **ikasle munduaren ikuspegi erreal eta gizatiar** batetik bideratzen laguntzen dute.

Hezkuntzarekin, enpleguarekin, gazteriarekin eta gizarte-garapenarekin zerikusia duten erakunde publikoekin ere lankidetzan arituko gara, hala nola **Hezkuntza Sailekin, Lanbiderekin, INJUVERekin, udalekin eta aldundiekin**. Izan ere, erakunde horiek sektore bereko beste enpresa batzuen aurrean finantza eta ikusgarritasuna eman ahal digute, eta horrek proiektuaren **sinesgarritasuna** indartzen du, erakunde publikoak direlako eta kontsumitzailearen aurrean sendotuta daudelako. Enplegu-erakundeek zuzenean ezagutzen dute enpresen errealitatea eta eskaria, eta, beraz, izugarri lagun diezagukete **profilak zorrozten** eta gure ikasle gazteak prestatzen, bai **unibertsitate-etapari** bai **kontratazio-aldiari** ahalik eta ondoen aurre egin diezaioten, etorkizunean **lanpostu baterako sarbidea erraztuz**.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Horien artean nabarmentzen da **INNOLAB Bilbao**, berrikuntza irekiko plataforma bat, enpresak, startup-ak eta unibertsitateak konektatzen dituen. Horrelako erakundeek gure sare profesionala zabaldu eta sektore desberdinetako agenteekin elkarlana errazteko aukera emango digute.

